

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 75/2019 FORU DEKRETUA**, ekainaren 18koa, azaroaren 27ko 154/2018 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu horren bidez, onesten dira Bizkaiko Lurralde Historikoan 2018ko ekainaren 16tik 2019ko ekainaren 15era bitartean egiten diren jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia. Jarduera horiek, dena dela, honako hauek bakarrik izango dira: kalifikatutako eta inbentariatutako gune edo ondasun arkeologikoak, edo ustez hondakin arkeologikoak dituztenak, edo Eusko Jaurlaritzaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren artxiboetan ondasun kalifikagarri edo inbentariagarri gisa agertzen direnak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz beharrezkoak diren jarduerak.

Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2018ko azaroaren 27ko bileran, Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 27ko 154/2018 Foru Dekretua onetsi zen (abenduarien 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 237. zk.). Haren bidez, onesten dira Bizkaiko Lurralde Historikoan 2018ko ekainaren 16tik 2019ko ekainaren 15era bitartean egiten diren jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia. Jarduera horiek, dena dela, honako hauek bakarrik izango dira: kalifikatutako eta inbentariatutako gune edo ondasun arkeologikoak, edo ustez hondakin arkeologikoak dituztenak, edo Eusko Jaurlaritzaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren artxiboetan ondasun kalifikagarri edo inbentariagarri gisa agertzen direnak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz beharrezkoak diren jarduerak.

Arestian aipatutako dekretu foralaren 18. oinarrian ezartzen da, deialdi honetan araututako diru-laguntzen zenbatekoa, guztira, hirurogei mila euro (60.000 €) dela, eta honela banatuta:

- a) Hogeita hamar mila euro (30.000 €), 0404 G/336107/46999/0000 2007/0155 aurrekontu-partidaren kargura, pertsona fisikoei, diru-laguntzak emateko, urteko hauetan banatuta:
  - 2018. urtekoa: 10.000 euro.
  - 2019. urtekoa: 20.000 euro.
- b) Hogeita hamar mila euro (30.000 €), 0404 G/336107/44300/0000 2007/0155 aurrekontu-partidaren kargura, partaidetzarik ez duten enpresei (SA, SL, kooperatiba-sozietateak eta sozietate zibilak, Kode Zibilarren 1.669. artikuluan jasota daudenak izan ezik), bai eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan enpresaburu eta profesional gisa alta emanda dauden pertsona fisikoei diru-laguntzak emateko, urteko hauetan banatuta:
  - 2018. urtekoa: 10.000 euro.
  - 2019. urtekoa: 20.000 euro.

Diru-laguntza hauek lehia askearen bidez onuradunak izateko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo/eta juridikoei emango zaizkie eta foru erakunde honek nahitaez ordaindu beharko ditu, legeak hala agintzen baitio.

Zehazki, maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak, Euskal Kultura Ondarearena, 67. artikuluan ezartzen duenez, babes berezia edo ertaina duten kultura-ondasunei eragiten dien edozein obratan proiektu arkeologikoen eta paleontologikoen idazketaren eta beteazpenaren finantzaketa jardueren titularraren kontura izango da, zuzenbide publikoko erakundeak direnean. Baldin eta titularra pribatua bada, kasuan kasuko foru-aldundiak bere gain hartuko du gastuen parte bat laguntzak emanez, edo zuzenean gauzatuko du proiektua, horrela egitea beharrezkotzat joz gero. Foru-aldundia, dena dela, behartuta egongo da jarduera arkeologikoak hartuko duen guztizko kopuruaren % 50 ordaintzera.



Azkenik, legezko testu beraren 65 artikulua zehazten du 67 artikulua ere aplikatu behar dela arkeologi aztarnak daudela uste deneko alde, orube edo eraikinetan.

Onuradunak izan daitezkeen pertsonen diru-laguntzok eskatzea borondatezkoa denez gero eta, bestetik, baimenetan ezarritako zenbatekoak aurrekontu hutsak direnez gero, eta, hortaz, azkenean egindako gastuekiko aldaketaren bat izan dezaketenez, aipatutako foru dekretuaren 18. oinarrian aipatutako zenbatekoak gutxi gorabeherakoak dira, eta deialdi hau onetsi duen administrazio honek berez aurreikusi ezin dituen egoerak gerta daitezke haien inguruan.

Bestalde, kontuan hartu behar da onuradunek eskaerak egiten dituzten urteko aurrekontuak aldatu egin daitezkeela. Horrela, kasu honetan 2018an eskaera gutxi izapidetu dira eta 2019an, ostera, foru diru-laguntza hau eskatu duten pertsona kopuruaren aurreikuspena handitu egin da.

Azaldu diren arrazoiak direla eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 27ko 154/2018 Foru Dekretuan araututako diru-laguntzen nahitaezko ordainketaren inguruko aurreikuspenak aztertu eta gero, ikusi da haren 18. oinarrian ezarritako partiden zenbatekoa aldatzeko premia, haien zenbatekoa, 2019ko urteari dagokionez, 13.000 euro eta 3.000 eurotan, hurrenez hurren, handituz.

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako diru-laguntzei buruzko araudiaren 41.2 artikulua aurreikusten duenaren arabera, «...eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahalko dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako dekretu baten bidez, betiere kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa. Beharrezkoa bada, luzatu egin beharko da eskabideak aurkezteko epea».

Ondorioz, uste da 154/2018 Foru Dekretua aldatu egin behar dela, goian adierazitakoaren arabera.

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17., 39 k) eta 64.3 artikulua, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautu zuen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartu zuen Diru-laguntzen Erregelamendua kontuan hartuta, eta Euskara eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuen martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak emandako ahalmenak aintzat hartuta, Euskara eta Kultura Saileko foru diputatu andreak proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2019ko ekainaren 18ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hau

XEDATZEN DA:

### 1. artikulua

Aldatu egiten da azaroaren 27ko 154/2018 Foru Dekretuaren 18. artikulua, eta hone-la geratzen da idatzita:

«1. Deialdi honetan araututako diru-laguntzen zenbatekoa, guztira, hirurogeita hamasei mila euro (76.000 euro) da, eta honela banatuko da:

- a) Berrogeita hiru mila euro (43.000 €), 0404 G/336107/46999/0000 2007/0155 aurrekontu-partidaren kargura, pertsona fisikoei, diru-laguntzak emateko, urteko hauetan banatuta:
  - 2018. urtekoa: 10.000 euro.
  - 2019. urtekoa: 33.000 euro.
- b) Hogeita hamahiru mila euro (33.000 €), 0404 G/336107/44300/0000 2007/0155 aurrekontu-partidaren kargura, partaidetzarik ez duten enpresei (SA, SL, kooperatiba-sozietateak eta sozietate zibilak, Kode Zibilaren 1.669. artikuluan jasota daudenak izan ezik), bai eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan enpre-



saburu eta profesional gisa alta emanda dauden pertsona fisikoei diru-laguntzak emateko, urteko hauetan banatuta:

— 2018. urtekoa: 10.000 euro.

— 2019. urtekoa: 23.000 euro.

2. Eskaera guztiak ebatzi ondoren, emandako diru-laguntza aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimena deuseztatzea izapidetuko litzateke, soberan den zenbatekoan.»

## **2. artikulua**

Aldatu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 27ko 154/2018 Foru Dekretuaren 5. oinarriaren 3. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«Eskabideak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 30era arte izango da (hori barne).»

### **AZKEN XEDAPENA**

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 2019ko ekainaren 18an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ